## ARAMAKO UDALA

*Iragarkia*

Iriarte balioanitzeko zentroaren erabilera arautzen duen ordenantzaren hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, orain behinbetiko bilakatu da. Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, Ordenantza horren testu oso-osoa argitaratzen da.

*Aramako Iriarte balioanitzeko zentroaren erabilera arautzen duen ordenantza.*

### HITZAURREA

Aramako udalak, ahalegin berezia egin du erabilera anitzeko gune bat herritarren eskura jartzeko. Sortu berri den gune honen mantenu eroso eta egoki baten aldera, bertako instalazioen erabilpen desegokia, edo neurriz kanpokoa, eta ondoriozko hondamena gutxitu asmoz, kontrol bat eramatea beharrezkoa ikusi da.

Korporazio lokalen ondasunak erostea, administratzea eta erabiltzea, erregimen lokaleko legeak eta berau arautzen duten erregelamenduek arautzen dute. Aipatu legediek aurreikusten dute, Korporazio lokalek, beren eskuduntzak erabiliz, arautu ahal izango dituztela, bando, ordenantza eta erregelamendu bidez.

Ondorio horretarako, Aramako udalak, Iriarte zentroaren erabilera arautzen duen ordenantza hau onartu du, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikuluak toki entitateei erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeko aitortutako ahalmenak erabiliz.

*1. artikulua.*

Ordenantza honen xedea, Iriarte zentroaren erabileraren arauketa da, Udalari egotzitako konpetentziak erabiliz.

*2. artikulua.*

Iriarte zentroa instalazio ezberdinek osatzen dute, bakoitzaren erabilpen mota ezberdina delarik. Horrela, zentroaren barnean, 5 erabilpen gune bereizten dira, ondorenean zerrendatzen direlarik.

— Haur Txokoa.

— Iriarte Aretoa.

— Udal Bulegoak.

— Udal Liburutegia.

— Soinketa Gunea.

Bost erabilpen gune hauek, erabilpen mota ezberdina duten heinean, norbanako araudiak izango dituzte. Aldi berean, araudi amankomun bat ere betearaziko da zentro guztirako.

### INSTALAZIOEN ARAUDI BATERATUA

*3. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera, txartel telematiko bidez kontrolatua izango da, sarrera guztiak errejistratuak izango direlarik. Txartela pertsonala izango da eta ezin izango da hirugarrengo bati utzi.

## AYUNTAMIENTO DE ARAMA

*Anuncio*

No habiéndose presentado reclamación ni sugerencia alguna contra la aprobación inicial de la ordenanza reguladora del centro polivalente Iriarte, de conformidad con lo dispuesto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento deviene en definitivo. Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art. 70-2.º de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto integro de dicha Ordenanza.

*Ordenanza reguladora del uso del centro polivalente Iriarte de Arama.*

### PREÁMBULO

El ayuntamiento de Arama ha realizado un esfuerzo especial para poner un espacio polivalente a disposición de la ciudadanía. Se considera necesario llevar un control para el mantenimiento oportuno y adecuado de las instalaciones evitando el uso inadecuado o abusivo de las mismas.

La adquisición y administración de bienes por parte de las corporaciones locales es regulada por la legislación de régimen local y los reglamentos que la desarrollan. La mencionada legislación prevé que las Corporaciones locales, en el ejercicio de sus atribuciones, podrán regular su uso mediante bandos, ordenanzas y reglamentos.

A tal efecto, el ayuntamiento de Arama ha aprobado la presente ordenanza reguladora del uso del centro Iriarte, en uso de la las potestades reglamentaria y de autoorganización atribuidas por el artículo 4.1.a) del Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

*Artículo 1.*

Es objeto de la presente ordenanza regular la utilización del centro Iriarte, en uso de las competencias atribuidas al Ayuntamiento.

*Artículo 2.*

El centro Iriarte se compone de diversas instalaciones destinadas a distintos tipos de uso. Así, en el centro se diferencian 5 zonas de uso que se relacionan a continuación.

— Espacio Infantil - Haur Txokoa.

— Sala Iriarte.

— Oficinas Municipales.

— Biblioteca Municipal.

— Gimnasio.

Los cinco espacios contarán con una normativa individual atendiendo a cada uso diferenciado. Asimismo, se deberá cumplir una normativa común para todo el centro.

### NORMATIVA COMÚN DE LAS INSTALACIONES

*Artículo 3.*

El acceso al centro Iriarte se controlará mediante una tarjeta telemática, registrándose todas las entradas que se realicen. La tarjeta será personal, no pudiendo ser cedida a terceros.

*4. artikulua.*

Iriarte zentroan ordutegi zehatz batean ahalbideratuko dira sarrera irteerak. Horrela, goizeko 7:00ak eta 21:30ak bitarteko tartean mugatuko da instalazioen erabilpena.

*5. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera ahalbideratzen duen txartelaren jabe izateko, udalean eskaera egin beharko da, hortarako prestatu den dokumentazioa osatuaz, eta ordenantza hauek onartzen direla argitzen duen dokumentua izenpetuaz.

*6. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera ahalbideratzen duen txartelaren jabe izan ahal izateko, nahitaezko baldintza izango da Araman erroldaturik izatea eta zergen ordainketan egunean egotea.

*7. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera ahalbideratzen duen txartelaren jabe izan ahal izateko, nahitaezko baldintza izango da 12 urte edo gehiago izatea. Halaber, 18 urtetik beherako txartel jabeen guraso edo tutoreak izango dira berauen erantzukizunen arduradun.

*8. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera ahalbideratzen duen txartelak erabilerarik izan ez badu sei hilabeteko denbora tarte batean, automatikoki baliogabetuko da berau.

*9. artikulua.*

Udalak, txartelaren emakida ukatzeko aukera erreserbatzen du, beti ere pisuzko arrazoiak betetzen badira.

*10. artikulua.*

Udalak, txartelaren emakidaren ordainetarako kuota edo tarifa ezartzeko, bai zentro osorako edota bai instalazio jakin batetarako, aukera erreserbatzen du, beharrezkoa ikusi ezkero.

*11. artikulua.*

Iriarte zentroko altzariak, ekipoak eta funtsa (liburuak, DVDak eta abar) ezin dira tokiz aldatu, hondatu edo behar ez bezala erabili. Norbaitek zerbait hondatzen badu, konponketa ordainduko du.

*13. artikulua.*

Derrigorrezkoa izango da txukuntasuna eta gainontzeko erabiltzaileekiko errespetua mantentzea.

*14. artikulua.*

Debekaturik geratzen da Iriarte zentroko edozein instalazioetan animalien sarrera, txakur itsu-gidariak izan ezik.

*15. artikulua.*

Debekaturik geratzen da Iriarte zentroko edozein instalazioetan erretzea eta alkoholdun edariak sartzea eta kontsumitzea.

*16. artikulua.*

Iriarte zentroko edozein instalaziotan, erabiltzaileak, sortu ahal lezaken edozein hondakin behar bezala sailkatu eta dagokion lekuan ontziratzeko betebeharra izango du.

*Artículo 4.*

Se establece un horario determinado para el uso de las instalaciones del centro Iriarte, limitándose el acceso a las mismas de 07:00 horas a 21:30 horas.

*Artículo 5.*

Las solicitudes para ser titular de la tarjeta de acceso al centro Iriarte se presentarán en el ayuntamiento, cumplimentando la documentación preparada al efecto y firmando el documento en el que se declara que se acepta la presente ordenanza.

*Artículo 6.*

Para ser titular de la tarjeta de acceso al centro Iriarte será requisito imprescindible estar empadronado en Arama y estar al corriente en el pago de impuestos.

*Artículo 7.*

Para ser titular de la tarjeta de acceso al centro Iriarte será requisito imprescindible ser mayor de 12 años. Asimismo, en caso de titulares de tarjeta menores de 18 años, serán sus padres o tutores los responsables de los mismos.

*Artículo 8.*

En caso de que la tarjeta de acceso al centro Iriarte no sea utilizada durante un período continuado de seis meses, será automáticamente anulada.

*Artículo 9.*

El ayuntamiento se reserva el derecho de denegar la concesión de la tarjeta en caso de que existan razones de peso para ello.

*Artículo 10.*

El ayuntamiento se reserva la posibilidad de establecer una cuota o tarifa por la concesión de la tarjeta, tanto para todo el centro como para una determinada instalación, en caso de que lo estime necesario.

*Artículo 11.*

Se prohíbe trasladar, dañar o usar de manera indebida los muebles, equipos y fondos (libros, DVDs, etc.) del centro Iriarte. La persona que cause algún daño deberá abonar la reparación correspondiente.

*Artículo 13.*

Es obligatorio mantener el orden y el respeto hacia las demás personas usuarias.

*Artículo 14.*

Queda prohibida la entrada de animales a cualquiera de las instalaciones del centro Iriarte, salvo en el caso de perros guía para ciegos.

*Artículo 15.*

Queda prohibido fumar en cualquiera de las instalaciones del centro Iriarte, así como introducir y consumir bebidas alcohólicas.

*Artículo 16.*

Cualquier tipo de residuos que se puedan generar en cualquiera de las instalaciones del centro Iriarte deberá ser debidamente clasificado y depositados en el contenedor correspondiente.

*17. artikulua.*

Iriarte zentroaren edozein instalazioren erabilera amaitu ostean, erabiltzailea argi guztiak itzaliak eta ate eta leiho guztiak itxiak geratzeaz arduratuko da.

*18. artikulua.*

Iriarte zentrorako sarrera ahalbideratzen duen txartelaren galera izaten bada, derrizgorrezkoa izango da, galeraz ohartu bezain laister udal bulegoetan honen berri ematea.

*19. artikulua.*

Udala ez da arduradun egiten, instalazioetan sortu litezkeen ondoeza edo istripu eta ustekabeko gertaeretaz, erabiltzailearen erabilpen oker baten ondorioz gertatu bada.

HAUR TXOKOA

*20. artikulua.*

Haur txokoaren erabilpena, besteak beste, ludoteka zerbitzua izango da. Gune hau, haurrak eta gurasoak elkartzeko nahiz jolasteko elkartze gune bat izatea da helburu.

*21. artikulua.*

Bertan, mokadutxoak antolatu ahal izango dira, garbitasuna mantentzea derrigorrezkoa delarik. Mokadutxoa antolatzeak, ez du elkartu daitezken beste herritarrekiko lehentasunik suposatuko.

*22. artikulua.*

Haur txokoaren erabilpenerako lehentasuna, haur txikiek eta beraien gurasoek izango dute. Erabilera partekatua izango da, baina beti egon beharko da haurrekin batera, guraso bat edo 18 urtez goragoko herritar bat, gunerako sarbide txartela duena, eta erabilpenaren ardura izango duena.

IRIARTE ARETOA

*23. artikulua.*

Iriarte aretoaren erabilpena, herri bizitza sustatzeko antolatu daitezken artelan erakusketa, antzerki, hitzaldi, batzar eta bestelakoen kokapena izango da.

*24. artikulua.*

Iriarte aretoaren erabilera ahalbideratzeko, udal bulegoetan egingo da eskakizuna, udalean jaso ahal izango duten eredu formalizatuan, eskatzailearen izena, erabilpena emango den arrazoia eta eguna eta ordu tarteak zehaztuko direlarik, ekintzaren iraupena eta aurreikusten den pertsona kopurua bai eta udalak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak ere. Eskaera gutxienez aurreikusitako gauzatze data baino 5 egun lehenagotik aurkeztu beharko da.

*25. artikulua.*

Iriarte aretoaren erabilpenerako eskaera, herriko edozein elkarte edo norbanakok egin ahal izango du.

Eskaera onartuta, berau egingo da izan daitezken arduren erantzule. Debekatuta dago utzitako lokala erabiltzea erabilera-baimenean jasotzen ez den edozein jarduera egiteko.

*26. artikulua.*

Udalak, arrazoi justifikatuak direla medio, edozein eskaera baztertzeko aukera erreserbatzen du. Eskatutako lokalaren erabilpen ona bermatzeko udalak fidantza bat ezartzea eskatu ahal izango du.

*Artículo 17.*

Tras la finalización del uso de cualquiera de las instalaciones del centro Iriarte, la persona usuaria se asegurará de que todas las luces queden pagadas y todas las ventanas cerradas.

*Artículo 18.*

En caso de pérdida o extravío de la tarjeta de acceso al centro Iriarte, será obligatorio comunicarlo en las dependencias municipales en cuanto se advierta la desaparición de la misma.

*Artículo 19.*

El ayuntamiento no se hace responsable de las indisposiciones, accidentes o imprevistos que pudieran suceder en las instalaciones, cuando sean consecuencia de un mal uso por parte de la persona usuaria.

ESPACIO INFANTIL – HAUR TXOKOA

*Artículo 20.*

El uso del espacio infantil se referirá, entre otros, al servicio de ludoteca cuyo objetivo es proporcionar un espacio de encuentro donde los niños y niñas y padres y madres puedan reunirse o jugar.

*Artículo 21.*

Podrán organizarse meriendas o tentempiés en el espacio, manteniendo en todo caso la limpieza. La organización de tentempiés no supondrá prioridad sobre las demás personas que puedan reunirse en el mismo.

*Artículo 22.*

Tendrán prioridad de uso del espacio infantil los niños y niñas pequeños y sus padres y madres. El uso será compartido, aunque junto con los niños y niñas siempre habrá una persona acompañante mayor de 18 años, titular de la tarjeta de acceso al espacio, quien se responsabilizará del uso del mismo.

SALA IRIARTE

*Artículo 23.*

La sala Iriarte se utilizará para exposiciones de arte, obras de teatro, conferencias, asambleas y otras actividades que se puedan organizar para fomentar la vida social del municipio.

*Artículo 24.*

Las solicitudes para acceder al uso de la sala Iriarte se presentarán en las dependencias municipales, cumplimentando el modelo normalizado que se facilitará en el ayuntamiento, detallando el nombre de la persona solicitante, motivo por el que se solicita el uso, fecha y franja horaria, junto con la duración del evento, número previsto de asistentes y demás documentos que el ayuntamiento estime oportunos. Las solicitudes se presentarán con un antelación mínima de 5 días a la celebración del acto.

*Artículo 25.*

La solicitud para el uso de la sala Iriarte podrá ser formulada por cualquier asociación o persona del municipio,

Aprobada la solicitud, el o la solicitante será responsable del desarrollo del acto a desarrollar. Queda prohibido el uso del local para cualquier actividad no contemplada en el permiso concedido.

*Artículo 26.*

El ayuntamiento se reserva el derecho de rechazar cualquier solicitud cuando existan causas justificadas. El ayuntamiento podrá exigir una fianza para garantizar el buen uso del local solicitado.

*27. artikulua.*

Erregelamendu honetatik kanpo gelditzen da Aramako udalak beste administrazio publikoekin eta beraien menpeko erakundeekin batera egindako lokalaren erabilpenak

*28. artikulua*

Iriarte aretoa ezingo da utzi irabazteko asmorik duten elkarteei eta Aramako herritik kanpo kokaturik dauden elkarteei. Kasu hauetan dauden elkarteek aretoa alokatu ahal izango dute ordenantza fiskalean jasotako prezioa ordainduta.

Irabazi asmorik gabeko elkartetzat joko dira horrela beraien estatutuetan horrela jasota daudenak eta inolako jarduera ekonomikoak egiten ez dutenak, eta eginez gero, horrekin lortutako irabaziak beraien estatutuetan jasotako interes orokorreko helburuak betetzeko bakarrik erabiltzen dituztenak, elkartekideei edo hirugarrenei irabazi zuzenak banatu gabe.

*29. artikulua.*

Lokalaren erabileren artean honako hauek ere baimenduko dira:

— Ezkontza zibilak eta antzeko ekitaldiak.

*30. artikulua.*

Erabilpenerako baimena jasotzen duten elkarteek edo taldeek eskatutako ekintza burutzearen ondorioz ateratzen dituzten dokumentu edo idazki guztietan eta baita jardueran ere, lehentasuna eman beharko diote euskarari.

*31. artikulua.*

Indarrean dagoen ordenantza fiskalak ezarritakoaren kaltetan gabe, erabilera doan eta prekarioan izango da ondorengo jarduerak egiten direnean:

Aramako udalak edo udalarekin batera antolatutakoak.

Aramako herri bizitza sustatzeko herriko elkarte eta partikularrek antolatutakoak

Interesdunak hala eskaturik eta udalak uste badu lokalean egin beharreko jarduera gizartearen intereserako edo herri-onurarako dela, eta horrela proposatu ez gero, Alkateak bermea jarri edo ordaintzetik salbuetsi dezake interesduna.

Herri bizitzarekin zerikusi ez duten ekintzak burutzeko edo bere estatutuetan irabaziak lortzeko helburua duten eskatzaileen eskaerak badira, tasa kobratuko da lokaleko argi, berogailu eta garbitasun kostuak ordaintzeko.

Ordaindu beharrekoa erabakia hartzerakoan zehaztuko da, baina tasak gutxigorabehera inporte hau izango dute:

Ordu bateko iraupena: 20 €.

2 orduko iraupena: 40 €.

UDAL BULEGOAK

*32. artikulua.*

Udal bulegoetarako sarrera, udal kide eta udal langileek izango dute aktibatua, soilik.

*33. artikulua.*

Debekaturik geratzen da, sarrera ahalbideratua dutenengan salbu, udal bulego orduetatik kanpo, eta inolako baimenik gabe, udal bulegoetan sartu izana.

*Artículo 27.*

Quedan excluidos del presente reglamento los usos del local realizados por el ayuntamiento de Arama junto con otras administraciones públicas y entidades dependientes.

*Artículo 28.*

La sala Iriarte no podrá ser cedida a asociaciones con ánimo de lucro ni asociaciones con sede fuera del municipio de Arama. Las asociaciones que se encuentren en tales circunstancias podrán alquilar la sala abonando el precio establecido en la ordenanza fiscal.

Se considerarán asociaciones sin ánimo de lucro aquellas que se definan como tales en sus estatutos y no ejerzan actividad económica alguna, y en caso de ejercerla, destinen los beneficios obtenidos exclusivamente al cumplimiento de los objetivos de interés general recogidos en sus estatutos, sin distribuir beneficios directos entre sus asociados o terceros.

*Artículo 29.*

Entre los posibles usos del local se autorizarán, asimismo, los siguientes:

— Bodas civiles y celebraciones similares.

*Artículo 30.*

Las asociaciones o agrupaciones que reciban el permiso de uso deberán priorizar el euskera en todos los documentos y escritos que emitan como consecuencia del mismo, así como en la actividad a desarrollar.

*Artículo 31.*

Sin perjuicio de lo establecido en la ordenanza fiscal vigente, el uso será gratuito y en precario cuando se desarrollen las siguientes actividades:

Las organizadas por el ayuntamiento de Arama o en colaboración con el mismo

Las organizadas por las asociaciones y particulares del municipio con el fin de fomentar la vida del pueblo de Arama.

Cuando el interesado o interesada así lo solicite y el ayuntamiento considere que la actividad a desarrollar es de interés social o en beneficio del pueblo, y así lo proponga, la Alcaldesa podrá eximir al interesado o interesada de constituir la fianza correspondiente.

Cuando se trate de solicitudes para desarrollar actividades no relacionadas con la vida del pueblo o formuladas por solicitantes con ánimo de lucro, según sus estatutos, se cobrará la tasa como contribución a los gastos de luz, calefacción y limpieza.

La cantidad a abonar se determinará en el momento en que se tome la decisión, pero su importe aproximado será aproximadamente el siguiente:

1 hora de duración: 20 €.

2 horas de duración: 40 €.

OFICINAS MUNICIPALES

*Artículo 32.*

El acceso a las oficinas municipales se activará únicamente para los miembros del ayuntamiento y personal del mismo.

*Artículo 33.*

Queda prohibido, excepto para los que tengan facultado el acceso, entrar en la oficinas municipales fuera de horas de oficina y sin permiso alguno.

UDAL LIBURUTEGIA

*34. artikulua.*

Udal liburutegian, besteak beste, irakurketa eta informatika zerbitzuak garatuko dira.

*35. artikulua.*

Liburutegian isilik egon behar da (ozen hitz egitea ez da batere lagungarria liburutegian dauden beste irakurleentzat). Era berean, haurrak irakurtzeaz aspertu eta aztoratzen direnean, joateko ordua da.

*36. artikulua.*

Liburutegian debekaturik geratzen da edozein motatako janari edota edarirekin sartzea.

*37. artikulua.*

Liburutegiko liburuak, mailegu bidez atera ahal izango dira bertatik. Horretarako, liburuak hartzerako garaian, irakurleak bere datuak eta liburuaren datuak bete beharko ditu funtzio horretarako prestatuko den datu basean. Itzulpena ere, datu base horretan erregistratzea beharrezkoa izango da, horretarako prestatuko den saskitxoan utziko direlarik. Maileguak, gehienera ere, 20 egun iraungo du.

*38. artikulua.*

Aramako udal liburutegia, liburutegi arteko mailegu zerbitzuaren kide izango da. Beste liburutegietan dauden liburuak ekartzerik nahi izanez gero, liburutegiko arduradunari eskatu beharko zaio zuzenean edota email bidez aramakoliburutegia@gmail.com).

*39. artikulua.*

Liburutegian ez dago telefono mugikorra erabiltzerik (ezta jolasteko ere); itzalita edo soinurik gabe eduki behar da. Halaber, ezin da irudirik grabatu edo argazkirik atera.

*40. artikulua.*

Liburutegian, debekaturik geratzen da eskulanak eta antzekoak burutzea (guraize, kola eta abar).

*41. artikulua.*

Liburutegian, 6 urtetik beherako haurrak heldu batek lagunduta egon ahal izango dute soilik.

SOINKETA ARETOA

*42. artikulua.*

Soinketa aretoa, izenak dioen moduan, soinketa ekintzak egiteko erabiliko da, izan banako ekintzak, edota taldekakoak.

*43. artikulua.*

Soinketa aretoan sartzeko aukera kideei bakarrik mugatuko da. Ez zaie, inolaz ere, kide ez direnei soinketa gunerako sarrera onartuko, sarrera ahalbideratu diona izango delarik beronen arduradun. Udalak, kasu puntualetan, kide ez diren pertsonei sarrera ahalbideratzeko eskumena izango du, hala nola ikastaro irakasleentzat, etab.

*44. artikulua.*

Soinketa aretoan, debekaturik geratzen da edozein motatako janari edota edarirekin sartzea, ura ezik.

BIBLIOTECA MUNICIPAL

*Artículo 34.*

En la biblioteca municipal se desarrollarán, entre otros, servicios de lectura e informática.

*Artículo 35.*

Hay que guardar silencio en la biblioteca (hablar en voz alta molesta a los demás lectores presentes en la biblioteca) Asimismo, cuando los niños y niñas se aburren de leer y empiezan a estar inquietos, es hora de marcharse.

*Artículo 36.*

Queda prohibido introducir todo tipo de alimentos y bebidas en la biblioteca.

*Artículo 37.*

Se podrán sacar libros prestados de la biblioteca. Para ello, el lector o lectora deberá proporcionar sus datos personales y los datos identificativos del libro a la base de datos que se dispondrá a tal efecto. Asimismo, se registrará la devolución, entregando el libro en la cesta que se dispondrá para ello. El préstamo tendrá una duración máxima de 20 días.

*Artículo 38.*

La biblioteca municipal de Arama será miembro del servicio de préstamos interbibliotecario. En caso de que se quiera solicitar un libro de otra biblioteca, se dirigirá la solicitud directamente a la persona encargada de la biblioteca o por e-mail a la dirección aramakoliburutegia@gmail.com.

*Artículo 39.*

No se puede utilizar el teléfono móvil en la biblioteca (ni siquiera para jugar); tendrá que estar apagado o con el sonido desactivado. Tampoco se podrán grabar imágenes ni hacer fotos.

*Artículo 40.*

Queda prohibido realizar trabajos manuales y similares en la biblioteca (tijeras, cola, etc.)

*Artículo 41.*

Los menores de 6 años deberán estar acompañados por una persona adulta en la biblioteca.

GIMNASIO

*Artículo 42.*

El gimnasio, como su propio nombre indica, se utilizará para actividades gimnásticas tanto individuales como colectivas.

*Artículo 43.*

El acceso al gimnasio será restringido, sólo para miembros. En ningún caso se permitirá la entrada a personas que no sean miembros, siendo responsable la persona que les facilite el acceso. El ayuntamiento, en casos puntuales, tendrá la facultad de permitir el acceso a personas que no sean miembros, como profesores de cursos, etc.

*Artículo 44.*

Queda prohibido introducir todo tipo de alimentos y bebidas en el gimnasio.

*45. artikulua.*

Soinketa aretoko sarrera aktibatua izateko, udalak ezartzen duen kuota egunean ordaindua izango da, kuota hau soinketarako makinen mantenurako erabiliko delarik.

*46. artikulua.*

Soinketa aretorako sarrera debekaturik izango da 16 urtez azpiko gazteentzat, edozein kiroletarako beharrezko eta, profesional batek argudiaturiko justifikazioa dutenek salbu. Azken hauek, udalari erabilpenaz ohartarazteko beharra izango dute.

*47. artikulua.*

Soinketa gunean, taldekako ekintzak antolatu daitezke, hala nola ikastaroak etab Taldekako ekintzek lehentasuna izango dute norbanako ekintzen aurrean.

*48. artikulua.*

Soinketa gunean, sortu litezken itxaronaldiak ekidite aldera, ekintza bakoitzak, ariketetarako ezarriko diren makinetan, gehienez ere, 30 minutu luzatu ahal izango da inor zai geratzen denetik.

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*49. artikulua.*

Aurreko ataletan ezarritako araudia ez betetzeak, erantzukizun administratiboa izango du, honako sailkapenaren arabera:

1. Hauste arinak.

a) Sarrerako txartelaren galera.

b) Instalazioen erabilera desegokia eta ekipo eta gainontzeko erabiltzaileenganako errespetu falta.

c) Edozein instalaziotan sarrera debekaturik duten pertsonei sarrera ahalbideratzea.

d) Zentroaren mantenuan eta energia kontsumoan eragin dezaken utzikeria.

e) Araudi honetan debekatuak izan diren ekintzak burutzea, edozein eratakoa delarik ere.

2. Hauste larriak.

a) Aurreko ataleko berberak, kalteak eragin diren kasuetan.

b) Hiru arauhauste arinen bateratzea, arauhauste larritzat tratatuko da.

*50. artikulua.*

Udalak, nahiz ofizioz, nahiz partikularrek egindako salaketaren ondorioz, ordenantza hausteak zigortzeko prozedurari hasiera emango dio. Zentroaren, eta bertako osagaien aurka egindako egintzak, delitu edo falta izan daitezkeenean, eskumena duen Aginte Judizialari dagokion txostena igorriko zaio, eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean, ez da salaketa prozedurarekin jarraituko.

*51. artikulua.*

Arauhausteak, kasua balitz, ondorengo isun hauekin zigortuko dira:

— Hauste arinak, 0€TIK 30€ bitarteko isuna.

— Hauste larriak, 30 €tik 300 € bitarteko isuna.

Isun hauez aparte, arau hausleak, Udalari Iriarte zentroko instalazioetan eragindako kalteen eta matxurengatik, erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginen zenbatekoaren kalte ordaina emango dio.

*Artículo 45.*

Para activar el acceso al gimnasio será necesario estar al día en el abono de la cuota que establezca el ayuntamiento, cuota que será destinada al mantenimiento de los aparatos de gimnasia.

*Artículo 46.*

Se prohíbe la entrada al gimnasio a menores de 16 años, salvo cuando sea necesario para la práctica de algún deporte, previa justificación de un profesional. Dichos profesionales deberán comunicar tal uso al ayuntamiento.

*Artículo 47.*

En la zona del gimnasio se podrán organizar actividades en grupo, tales como cursos, etc. Las actividades de grupo tendrán prioridad frente a las individuales.

*Artículo 48.*

A fin de evitar los tiempos de espera que puedan producirse en el gimnasio, cada actividad desarrollada en las máquinas de ejercicios podrá prolongarse 30 minutos como máximo desde el momento en que haya una persona en espera.

INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 49.*

El incumplimiento de la normativa precedente resultará en responsabilidad administrativa, en función de la siguiente clasificación:

1. Infracciones leves

a) Pérdida de la tarjeta de acceso.

b) Uso indebido de las instalaciones y el equipo y falta de respeto hacia las demás personas usuarias.

c) Facilitar el acceso a cualquiera de las instalaciones a personas que tengan prohibida la entrada a las mismas.

d) Negligencia que pueda afectar al mantenimiento del centro y al consumo de energía.

e) Realizar actos de todo tipo prohibidos por la presente normativa.

2. Infracciones graves

a) Las enumeradas en el apartado anterior, cuando se hayan producido daños.

b) La acumulación de tres infracciones graves será considerada infracción grave.

*Artículo 50.*

El ayuntamiento, de oficio o a consecuencia de denuncia presentada por particulares, iniciará el procedimiento para sancionar la infracción de la ordenanza. Cuando los actos realizados contra el centro o componentes del mismo puedan ser constitutivos de delito o falta, se librará el informe correspondiente a la Autoridad Judicial competente, quedando suspendido el procedimiento de denuncia a la espera de la resolución judicial.

*Artículo 51.*

Las infracciones, en su caso, se sancionarán con las siguientes multas:

— Infracciones leves, multa de 0 € a 30 €.

— Infracciones graves, multa de 30 € a 300 €.

Además de abonar la multa, la persona infractora deberá indemnizar al ayuntamiento por daños y desperfectos ocasionados en las instalaciones del centro Iriarte y accidentes o perjuicios causados a otras personas usuarias.

*52. artikulua.*

Arauhauste larriak, dagokion isunaz gain, aldi baterako, edota kasu bada, betirako sarrera galeraztea ekar lezake erabiltzailearenganako.

BUKAERAKO XEDAPENA

*53. artikulua.*

Udalak ahalmena du, erregelamendu hau interpretatzerakoan sor litekeen edozein arazo konpontzeko.

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau indarrean sartuko da, behin bere testua osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta Erregimen Lokalari buruzko oinarrien Lege Erregulatzailearen 70.2 artikuluaren tramiteak betetzen direnean.

Arama, 2014ko urtarrilaren 10a.—Alkatea.

(9) (333)

*Artículo 52.*

La infracción grave, además del abono de la multa correspondiente, podrá dar lugar a la retirada temporal o, en su caso, definitiva del derecho de acceso.

DISPOSICIÓN FINAL

*Artículo 53.*

El ayuntamiento está facultado para resolver cualquier conflicto derivado de la interpretación del presente reglamento.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor cuando se haya publicado completamente su texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y se hayan cumplido los trámites del artículo 70.2 de la Ley Reguladora las Bases del Régimen Local.

Arama, a 10 de enero de 2014.—La Alcaldesa.

(9) (333)